



Irakasleen prestakuntza Photo-Intervalo Antonio Pérezen eskutik. Julio Albarrán erabiltzailearen argazkia

PLANEA IKASTETXEEN- TZAKO DEIALDIA

2026/2027 ikasturtea

WWW.REDPLANEA.ORG

Daniel & Nina
Carasso
FUNDACIÓN

GENERALITAT
VALENCIANA

CONSORCI
DE MUSEUS
DE LA
COMUNITAT
VALENCIANA

Permea

UNIVERSITAT
POLITÈCNICA
DE VALÈNCIA

pedagogías
invisibles
arte + educación

ZEMOS98

TALLER
ENBLANCO

artaziakoop

rexe
nera
ndo | S. Coop.
Galega

ESBALUARD
MUSEU

Colaboran

A Junta de Andalucía
Consejería de Desarrollo Educativo
y Formación Profesional

Comunidad
de Madrid

Conselleria d'Educació
i Universitats
Direcció General de Primera Infància,
Atenció a la Diversitat i Millora Educativa

SIE
Servei d'Innovació Educativa

XUNTA
DE GALICIA | CONSELLERÍA DE EDUCACIÓN,
CIENCIA, UNIVERSIDADES E
FORMACIÓN PROFESIONAL

CRIE
CENTRO RIOJANO
DE INNOVACIÓN
EDUCATIVA

La Rioja

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEIALDIAREN HELBURUA




Deialdi hau Andaluziako, Madrilgo Erkidegoko, Valentziako Erkidegoko, Euskadiko, Galiziako, Balear Uharteetako eta Errioxako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, oinarrizko LHko eta erdi-mailako zein goi-mailako heziketa-zikloetako ikastetxe publikoentzat da.

PLANEA Ikastetxe gisa parte hartu nahi baduzu, irakurri deialdi hau zehatz-mehatz, prestatu zure proiektua ematen dizugun ereduaren arabera, berrikusi ondo haren

itxiera data zure lurraldearen arabera, **eta prestatu informazio guztia hemen dagoen inprimaki honen bidez:**

Aipatutako lurraldeetan ez dauden ikastetxeak edo aurreko ikasturteetan ikastetxe pilotuak izan direnak automatikoki kanpo geratuko dira.



forms.gle/yKrs6Q6vFY7CtFZY6

ZER DA PLANEA



PLANEA 2026 Estatu Batzarra. Julio Albarrán erabiltzailearen argazkia

Praktika artistikoak zeharka erabiltzen dituzten ikastetxe, eragile eta erakunde kulturalen sare bat da **PLANEA**, lurraldean kokatua eta eskola publikoan orokortzeko eta irauteko bokazioa duena.

Hezkuntzaren esparruan, arteak iruditeri eta narratiba berriak, pentsamendu kritikoa eta sentsibilitate berriak sortzen laguntzen du, herritartasun eredu konprometitu bat bultzatuz. Sareak administrazio publikoetako irakasleak, ikasleak, familiak, artistak eta kultura- zein hezkuntza-erakundeak biltzen ditu ahalduntze-praktiken inguruan, eta horietan inplikatzeko direnei agentzia handiagoa ematen diete.

Sareak arte- eta eskola-proiektuetarako sarbide ekitatiboa ematen du, eta aldaketa iraunkorrek sustatzeko asmoarekin egiten du hori, bai bere jarduerak garatzen duen lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, bai horien inguruko eragileetan. PLANEAk ikuspegi sistemiko batekin lan egiten du. Horrek dauden ekimenen aniztasuna aitortzen du, eskola publikoa zaintzen du, ehuna (bir)sortzen du, eta printzipio operatibo gisa entzutea eta bitartekaritza du.

PLANEAk jarduera eta praktika desberdinen bidez praktika eraldatzaileei eusten dieten ikaskuntzak, baliabideak, metodologiak, ereduak eta markoak partekatzen ditu. Haren antolamendua bitartekaritzako lurralde-nodoetan hedatuta dago (bat PLANEA lurralde bakoitzeko), eta, aldi berean, zeharkako lantaldeak antolatzen eta koordinatzen dituen koordinazio-nodo bat du. Gaur egun, funtzionamenduan dauden bitartekaritza-nodoak honako hauek dira: Andaluzia (**ZEMOS98k** koordinatua), Madrilgo Erkidegoa (**Pedagogías invisibles** erakundeak koordinatua), Valentziako Erkidegoa (**PERMEA Masterrak, Consorci de Museusek eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoak** koordinatua), Balear Uharteak (**Es Baluarte** koordinatua) eta Galizia (**Rexenerandok** koordinatua). Deialdi honetarako, Errioxa (**Taller EnBlancok** koordinatua) eta Euskadi (**Artaziak** koordinatua) gehitu dira, PLANEA lurralde berri gisa.

PLANEAREN 2. fasean, abian jartzen dugun programetako bat «**PLANEA Ikastetxeak**» izenekoa da, eta deialdi honen bidez arautzen dira.

PLANEA IKASTETXEAREN DEFINIZIOA



CEIP As Covas - Meaño. Paulo Nogueira erabiltzailearen argazkia

PLANAREN fase berri honen asmoa da ikaskuntzak sendotzea eta eredu zehatz bat eskaintzea artearen eta eskolaren arteko harremanak modu esperimental eta kokatuan pentsatzeko. «PLANEA ibilbide-orria» deitu dugun horrek ibilbide koordinatu bat barne hartzen du sarean sartu berri diren ikastetxeentzat.

Ibilbide hori antzekoa da ikastetxe guztietan, baina malgua eta pertsonalizatua da haien prestakuntza-beharretarako, eta testuinguru bakoitzak eskatzen dituen ikaskuntza-proiektu, -ideia eta -egoerei erantzungo zaie.

PLANEA ikastetxeek hasieratik izango dute beren bideak, gaiak, esperientziak eta diziplina artistikoak aukeratzeko gaitasuna, betiere bitartekaritza-nodoekin eta eragile zein artista laguntzaileekin batera diseinuan lan eginez.

Jarraian agertzen den taulan, hiru urte hauetako garapenaren oinarritzko eta gutxi gorabeherako eskema bat ezartzen da, inplikaturako kolektiboaren arabera:

PLANEA IKASTETXEEN

| ROLA | 1. URTEA | 2. URTEA | 3. URTEA |
|----------------|---|--|--|
| KLAUSTROA | Formakuntza: Zein arte zein eskolatarako? | Formakuntza: Hautatutako bigarren formakuntza-ibilbidea | Formakuntza: Proiektu artistikoen diseinua |
| TALDE ERAGILEA | <ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen diagnostikoa/ interesak• Baliabide kulturalen mapeoa• Formakuntza espezifikoa | <ul style="list-style-type: none">• Curriculimerako egokitzapena• Ikastetxeko Plan Artistikoa | <ul style="list-style-type: none">• Plangintza autonomoa• Tailer artistikoen antolaketa• Formakuntza espezifikoa |
| ARTISTA(K) | <ul style="list-style-type: none">• Artista egoitzan 2. eta 3. hiruilabetean | <ul style="list-style-type: none">• Artista egoitzan• Arte-eskola kit autonomoa | <ul style="list-style-type: none">• Proiektu autonomoa• Arte-eskola kit autonomoa |
| NODOA | <ul style="list-style-type: none">• Elkarrekiko ebaluaketa eta akonpainamendua | <ul style="list-style-type: none">• Akonpainamendua eta bitartekaritza | <ul style="list-style-type: none">• Aholkularitza sarean |

ZER HARTZEN DUGU TALDE ERAGILETZAT?

Ibilbide hori hiru ikasturtez martxan jartzeak konpromiso sendoa eskatzen du. Horregatik uste dugu Talde Eragilearen rola funtsezkoa dela deialdi honetan.

PLANEAK daraman ibilbidean ikasitakoari dagokionez, badakigu **Talde Eragile** batek Zuzendaritza Taldeko kideak izan behar dituela, ziklo eta maila desberdinak ordezkatu behar dituela eta ikastetxeko proiektu artistikoaren onura komunaz arduratzeko zein antolatzeko prest egon behar duela.

Talde Eragileak gai izan behar du klaustroko gainerako kideen irakaskuntza-prestakuntza aktibatzeke, eta,

aldi berean, eraginkorra izan behar du erabakiak hartzerakoan. Badakigu denbora oso ondasun preziatua dela, eta, horregatik, komunikazio bideak aktibatu daitezke, betiere arinak badira, berehalako mezularitzaren edo posta elektronikoaren bidez.

Modu organikoan, bitartekaritza-nodoa Talde Eragilearen parte izango da eta kudeaketa koaderno bat eskainiko du. Beharrezkoa den guztietan, ikastetxean parte hartzen duten eragile laguntzaileek eta artistek talde eragilearen bileretan parte har dezakete.

EPEAK ETA IZEN-EMATEAREN PROZEDURA



Anna Berenguerreren Sant Miceli proiektua. Eva Cifrerren argazkia - Es Baluard

Deialdi honetan 3 ikastetxe aukeratuko dira Andaluzian, Valentiako Erkidegoan, Madrilgo Erkidegoan eta 2 ikastetxe Euskadin, Errioxan, Galizian eta Balear Uharteetan.

Deialdia lurralde-tarteen arabera egongo da aktibo:

- **Balear Uharteetako** ikastetxeentzat 2026ko ekainaren 30era arte
- **Valentiako Erkidegoko** ikastetxeentzat 2026ko uztailaren 9ra arte
- **Galiziako** ikastetxeentzat 2026ko irailaren 7ra arte
- **Madrilgo Erkidegoko** ikastetxeentzat 2026ko irailaren 14ra arte
- **Andaluziako** ikastetxeentzat 2026ko irailaren 30era arte
- **Euskadiko** ikastetxeentzat 2026ko irailaren 30era arte
- **Errioxako** ikastetxeentzat 2026ko irailaren 30era arte

Inprimakiak jaso ondoren, deialdi honetan ezarritako irizpideak betetzen dituzten ikastetxeen aurre-hautaketa egingo da. Proposamenak argitu eta ondo ezagutzeko, nodek bilerak edo telefono-deiak egin ahal izango dituzte ikastetxeetara.

Oro har, **deialdia itxi eta 10-15 egunera** argitaratuko da hautatutako ikastetxeen zerrenda. Deialdi hau urtekoa da, eta 2027/2028 ikasturterako ikastetxe berrietara bidaliko da berriro.

Izen-ematea egingo da proiektu bat aurkeztuz honako inprimakiaren bitartez. Proiektuaren eredia hemen deskargatu dezakezu.



BALORAZIO IRIZPIDEAK

Sareko bitartekaritza-nodoen erantzukizun eksklusiboa da PLANEA ikastetxeak aukeratzea, eta, betiere, geografia-aniztasunari, ikastetxe-motei, errealitate sozioekonomikoei eta kulturei buruzko irizpide orokorrak hartuko ditu kontuan.

Gainera, berariaz baloratuko ditugu irizpide hauekin bat datozen ikastetxeak:

1. Arte- eta eskola-proiektuak ikastetxeko ahalik eta ikasgela eta ziklo gehienetan zeharka abian jartzeak dakarren hezkuntza-aldaketan inplikaturik dago klaustroa.
2. Ikastetxea gai da hiru ikasturtez plantillaren errealitatearekin, zuzendaritza-taldeetan izandako aldaketekin eta haien mugikortasunarekin konpromiso hori hartzeko.
3. Ikastetxearen proposamenean zehazten da arteen eta funtsezko gaitasunak lortzearen artean dagoen lotura.
4. Ikastetxeak eta talde eragileak dagoeneko identifikaturik dituzte eraldaketa pedagogikoko erronkak eta helburuak non artea funtsezko tresna izan daitekeen.
5. Hezkuntza-komunitatea eraldaketa eta hobekuntza horietan inplikaturik dago, eta ingurune kultural eta sozial posibleen aniztasuna onartzen du, inplikaturik dago eta mobilizatzen da, edo hori egiteko potentziala dago.
6. Zentroak aurretik ere izan ditu arteekin lotutako esperientziak edo beste proiektu batzuk.

IKASTETXEAREN KONPROMISOAK



Kudeaketa Koadernoaren Lagapena - IES Guillem D'Alcalà. PERMEAREN argazkia

Azkenean aukeratutako ikastetxeek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- PLANEA talde eragile bat sortzea, Zuzendaritza Taldearen ordezkariarekin, PLANEAREN inplementazioa gidatzeaz arduraturik dena.
- Klaustroaren % 10ek gutxienez parte hartzeko konpromisoa, jakintza-arlo eta hezkuntza-maila guztietako ordezkariarekin.
- PLANEAK Talde Eragilearentzat eta Klaustroarentzat antolatzen duen urteko prestakuntzan parte hartzea. Prestakuntza horrek gutxienez 18 orduko iraupena izango du urtean (ikasturtean zehar banatuta), eta egingo da ikastetxeko kulturarako denbora eta modu egokienak adostuz.
- Eskola-orduetan eta zeharka garatzea proposaturikotako programa eta egoitza artistiko-hezitzaileak.
- PLANEA sareko eskualde-topaketetan (ikasturtearen hasieran edo amaieran egiten dira, lurralde bakoitzaren arabera) eta estatu-mailako topaketetan parte hartzea (otsailtik martxora bitartean eta asteburu batean egin ohi dira).
- Erantzunak ematea eta talde eragilearen, irakasleen eta ikasleen ebaluazioari arreta egokia emateko denborak eta espazioak antolatzea.
- PLANEAREKIN konpromisoak sinatzea, deialdi honetako irizpide eta baldintza guztiak jasoko dituen dokumentu batean.

PLANEAREN KONPROMISOAK

PLANEAREN bitartekaritza-nodoek gidatu, lagundu eta argituko dituzte programa horiek garatzeko prozesuan sortzen diren zalantzak. PLANEAREN asmoa da praktikak ez hain burokratikoak bihurtzea eta ikastetxeekin zein artistekin programa horiek garatzeko lana ahalik eta gehien erraztea. Zehazki, hauek dira sarearen konpromisoak:

- Irakasleentzako eta kultur eragileentzako prestakuntza, Bide-Orriak aurreikusten dituen arloetako bakoitzean.
- Programak, egoitzak eta proiektuak garatzeko finantzaketa egokia ematea. Finantzaketa beti jasoko dute artista, eragile eta kolektiboek, eta diru finalista bat izango da, proposamen artistikora edo prestakuntzara eskusiboki bideratuko dena.
- Eskualdeko eta estatuko topaketen bidaien eta lekualdatzeen gastuak estaltzea.
- PLANEA ikastetxeko irakasle-taldeak eta hezkuntza-komunitateko eragileek lehentasuna izango dute

prestakuntza, bidaiak-poltsa, truke eta gainerako jardueretan. Sareak argitaratutako paperezko argitalpenak bidaltzea, ikastetxe bakoitzeko liburutegia handitzeko.

- PLANEAREN praktiken, proiektuen eta emaitzen ikusizko eta ikus-entzunezko dokumentazioa. Dokumentazio hori ikastetxearentzat eskuragarri egongo da, eta bere sare eta komunikazioetan erabili ahal izango du.
- Aintzatespen publikoa, sarearen eta hari lotutako eragileen komunikazio-tresnen bidez.
- PLANEA plaka bat ematea zentroaren eraikinean instalatzeko, sarean duen inplikazioa aitortzeko.
- Prozesua urtez urte gidatuko duen kudeaketa koaderno bat ematea, ikasturte bakoitzeko zereginak abian jartzeko txantiloiak eta tresnak emanez.

GATAZKAK KONPONTZEA



La Morsa, Alcorcón Txotxongilo Zentroa. Iván Castellanoren argazkia

PLANEAN parte-hartzea borondatezkoa, doakoa eta ikastetxe publikoen antolamendu- eta pedagogia-zailtasunen jakitun da.

Sarearen intentzioetan beti egongo da arazoak, blokeoak eta zailtasunak konpontzeko irtenbideak bilatzea, eta horregatik utzi dugu argi zein diren programa berri honek ezartzen dituen gutxieneko konpromisoak.

ZALANTZAK ARGITZEKO

Bitartekaritza-nodoetara jo dezakezu eta idatzi hola@redplanea.org helbidera edozein zalantzarako.

Konpromiso horiek ez onartzeak – idatziz sinatuko dira akordio batean, eta ezagunak direla ulertuko da hautagaitza bat aurkeztean – edo PLANEA ikastetxe gisa konpromiso horietako bat aurrera eramateko aldi galtzeak sareko baliabideak beste ikastetxe batzuetara erretiratzea edo birbideratzea eragin dezake. Hori beti bitartekaritza-nodoen eta inplikaturako ikastetxeen artean adostuta gertatuko da.

PLANEA

RED DE ARTE Y ESCUELA

Con el impulso de



PLANEA está formada por



CONSORCI DE MUSEUS DE LA COMUNITAT VALENCIANA

Permea



UNIVERSITAT POLITÈCNICA DE VALÈNCIA



ZEMOS98

TALLER EN BLANCO

artaziakoop

rexe nera ndo | S. Coop. Galega

ESBALUARD MUSEU

Con la colaboración de



WWW.REDPLANEA.ORG